

Zaugarriak, zaurkorak
Zaurtzaileak

Zaugarritu. Zauritu, kolpatu, hondatu
Urratu. Zartatu, tarratatu. Apurtu. Zabaldtu
(Barrez) lehertu

Arrakala. Arteka, pitzadura
Arrakalatu. Printzatu, **pitzatu**
Ireki

ARRAKALATUTA

Vulnerables, vulneradas
Vulneradoras

Vulnerar. Herir, golpear, dañar
Rajar. **Rasgar**, desgarrar. Quebrantar. Despuntar
Desternillarse

Arrakala, grieta. Fisura, hendidura
Arrakalatu, **agrieta**. Astillar, resquebrajar
Entreabrir(se)

ARRAKALATUTA

ARRAKALATUTA zaugarritasun kontzeptutik abiatzen da; hau urratzeko, pitzatzeko, irekitzeko. Bere baitan duen potentziatik pentsatuz: (ezberdintasunik gabe pentsatu ezin daitekeen) izaera komun bezala bertara jotzeko; muga zein irekiera moduan. Behin eta berriz fronte, mugari, diferentzia bezala ebatzi eta gauzatu; gure gorputzen zaugarritasun soziala – desio eta zaugarritasun fisikoaren lekua, agerian – da politikoki eratzen gaituena. Eta gure elkarrekotasuna aztertzer behartzen gaituena, bizikidetasunerako zenbait instantzi birpentsatu asmoz.

ARRAKALATUTA topaketa programak, jokuan dauden zenbait autu zeharkatzen dituzten praktikan dabiltzan gonbidatuak gerturatu ditu. Eremu artistikotik, filosofikotik... gorputzetik, lurraldetik. Haien konplexutasuna urratu nahian.

ARRAKALATUTA parte del concepto de vulnerabilidad; para rasgarlo, agrietarlo, entre-abrirlo. Pensándolo desde su potencia: para acudir a ella como condición común (que no puede ser pensada sin diferencias); tanto de límite como de apertura. Articulada y ejercida a menudo como frente, frontera, diferencia; la vulnerabilidad social de nuestros cuerpos – como un sitio de deseo y vulnerabilidad física, expuesta – es la que nos constituye políticamente. Y es la que nos obliga a examinar nuestra correlatividad, desde la que repensar ciertas instancias de cohabitación.

El programa de encuentros ARAKALATUTA acerca a invitadas cuyas prácticas atraviesan algunas de las cuestiones que están en juego. Desde lo artístico, lo filosófico... lo corporal, lo territorial. Para abrirnos a su complejidad.

ARRAKALATUTA
2014.11 | 2015.06

2015 AURRERAPENA | AVANCE

Martxo | Marzo
CHANTAL AKERMAN

Apirila | Abril
BOJANA KUNST

Maiatza | Mayo
ADRIANA CAVARERO

KAXILDA

Arroka 2, behe B
20006 Donostia
943 571 987

arrakalatuta@kaxilda.net
www.kaxilda.net/arrakalatuta

Babeslea | Con la ayuda de:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Laguntzaileak | Colaboradores:



donostiakultura.com

ARRAKALATUTA KaXilda lantaldetik antolatu den topaketa eta lantegi programa bat da, 2014/2015ean zehar garatuko dena. Esku artean duzun programazioa **2014ko udazkenari** dagokiona da.

ARRAKALATUTA es un programa de encuentros y talleres organizado desde el grupo de trabajo KaXilda, que se desarrollará durante 2014 / 2015. La programación aquí detallada es la que corresponde a **otoño de 2014**.

AZAROA | NOVIEMBRE

GORPUTZA JAURTI

Pentsamendu eta arte-praktika garaikideen inguruko lantaldea da GORPUTZA JAURTI, KaXildatik Tabakalarekin lankidetzan bultzatua. Gorputza jauritzeak, norberaren autonomia testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoarekin negoziatzea suposatzen du. GORPUTZA JAURTIk lantalde desplazatua, mugikorra eta autonomoa izan nahi du, bere gorputza jarri Donostian testuinguru eta ezagutza sortu nahi duena. Ez dago hemen egoteko beste modurik: gorputza jarri.

GORPUTZA JAURTI es un grupo de trabajo en torno al pensamiento y a las prácticas artísticas contemporáneas impulsado por KaXilda en colaboración con Tabakalera. Arrojar el cuerpo implica negociar la autonomía de cada una con el contexto social, político y económico que le rodea. GORPUTZA JAURTI quiere ser un grupo de trabajo desplazado, móvil y autónomo que pone su cuerpo para la creación de contexto y conocimiento en Donostia. No hay otra manera de estar aquí presente: poniendo el cuerpo.

22

10:00 - *Kaxilda*

Lantaldearen lehen saioa | Primera sesión del grupo de trabajo

IDOIA ZABALETA

Biologian lizentziatutako koreografa. Gauzak erlazioan jartzeko sistema konplexu bezala ulertzen du koreografia. Dantzatzeaz gehien atsegin duen gauzetako bat bestearekin dantzatzearena da - pertsona, objektu edo planeta izan; helduta edo/eta bakarka. Bere lana nazioarteko jaialdietan aurkeztu du, master eta graduondo ezberdinetan klaseak ematen ditu, eta 2008tik Juan Gonzalezekin batera AZALA izeneko sorkuntza espazioa gidatzen du arabar landa-ingurunean.

Coreógrafa licenciada en biología. Entiende la coreografía como un sistema complejo de poner las cosas en relación. Una de las cosas que más le divierte de bailar es bailar con el otro, ya sea una persona, un objeto o un planeta, bailar agarrados y/o a lo suelto. Ha presentado su trabajo en festivales internacionales, imparte clases en diversos masters y cursos de postgrado y desde 2008 gobierna AZALA junto con Juan González, un espacio de creación situado en el medio rural alavés.

26

20:00 - *Club aretoa | Sala Club (Victoria Eugenia)*

Posthumos

Bere prozesuko hainbat unetan lan honek bestelako izenburuak nahi izan ditu. Hala ere, hauetariko inork ez du lortu ezkongai serio eta soilenari inposatzerik: Posthumos. Su artifizialen eta Bizkaiko Labe Garaien ondoren geratzen dena. "Arbaso batzuei, historia bati egindako deia norbera kokatzeko metodo gisa. Gauzei izenak jartzea, historia salatzea eta norberaren izenean erantzutea historia horren partaide bezala".

Este trabajo, en varios momentos de su proceso, ha querido titularse con otros nombres. Ninguno de estos títulos, sin embargo, ha conseguido imponerse al más serio y sobrio de los pretendientes: Posthumos. Lo que queda después de los fuegos artificiales y de los Altos Hornos de Vizcaya. "La invocación de unos antepasados, de una historia como método para ubicarse una misma. Poner nombres a las cosas, acusar a la historia y responder por una misma como participante de tal historia".

Ondorengo elkarrizketa ikusleekin | Conversación posterior con el público

Laguntzailea | Colabora: Donostia Kultura

27

19:00 - *Kaxilda*

Posthumos B aldea | Cara B

Elkarrizketan | En conversación: Idoia Zabaleta, Ixiar Rozas

Zuzeneko aurkezpena | Presentación en directo: Vitoria, Victoria, Vitorear. Oier Etxeberria

28 - 29 - 30

Alta Boza tailer - laborategia | Taller - laboratorio Alta Voz

Tailerreko hiru egunetan zehar, parte hartuko dutenekin "giza bozgorailua" izenarekin Occupy mugimenduan erabili zen ahots-anplifikazio teknologia esperimintatu eta aztertu nahi nuke. Pertsona batek testu bat dio ozenean, hitz segida bat bestearen ondoren eta bere inguruko pertsona talde batek esaldi bakoitza aho batez errepikatzen du, hitzez hitz, bai testuaren ahotsa zein testuari ahotsa ematen dioten gorputzak amplifikatuz. Adibidez, norbaitek ahoz goran esango balu "eztarri ireki aireak kolpekatzen duen epiglotia!", taldeko besteek aho batez esango lukete "eztarri ireki aireak kolpekatzen duen epiglotia!". Proposamena "giza bozgorailu" horren esplorazioa partekatzean datza, inplizitua daraman nolabaiteko protesta zentzuaz erantziz; eta, hala ere, geure buruari galdetuz: zein hitzek merezi dute espazio publikoan amplifikatuak izateak? Zein hitz deklamatu, amplifikatu, inskribatu Easo plazan? Eta Arroka kaleko frontoiaren inguruneetan?

A lo largo de tres días de taller pretendo experimentar y estudiar, con las personas que participen, la tecnología de amplificación de voz que se utilizó en el movimiento Occupy con el nombre de "micrófono humano". Una persona declama un texto, frase a frase, serie de palabras tras serie de palabras y un grupo de personas a su alrededor repite al unísono cada frase, palabra por palabra, amplificando así tanto la voz del texto como los cuerpos que dan voz al texto. Por ejemplo, si alguien dijera en voz alta "¡garganta abre la epiglotis que el aire golpea!", el resto del grupo repetiría al unísono, "¡garganta abre la epiglotis que el aire golpea!". La propuesta consiste en compartir esta exploración del "micrófono humano" despojándola de cierta idea de protesta que conlleva implícita y, sin embargo, preguntándonos aún: ¿qué palabras merecen ser amplificadas en el espacio público? ¿Qué palabras declamar, amplificar, inscribir en la plaza Easo? ¿Y en los aledaños del frontón de la calle Arroka?

28 · 16:00 – 20:00 - *Kaxilda*

29 · 10:00 – 14:00 - *Kaxilda*

Tailerraren saioak | Sesiones del taller

Izen-ematea | Inscripción: arrakalatuta@kaxilda.net

30 · 12:00 - *Hirian | en la ciudad (Amara Zaharra)*

Tailer - laborategiaren irekiera | Apertura del taller - laboratorio